

Gure enpresa aurrera eramateko, ezinbesteko da jardueren plangintza bat egitea. Bertan, egunerokotasunean gauzatuko diren ekintza eta dinamikak zehaztuko dira.

Taula honen bidez lehenengo asteetan zerbitzuak izango dituen behin behineko ordutegia eta planifikazioa azaltzen da:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata	Igandea
Goiza (10:00-14:00)							
Arratsaldea (16:00-20:00)							
Gaubela (20:00-24:00)							

Taularen jarraibideak koloreka:

1. Itxita
2. Ekintza lasaiak, gehien bat elkarriketak
3. Ekintza bereziak
4. Gaubelak

Ekintza lasaiak, gehien bat elkarriketak: (2)

Asteazken zehar eta igandetan giro goxoa eraikiko da zentroan. Bertako eserleku erosoetan parte-hartzaileen esperientzia eta ideia desberdinen inguruan hausnartzea da xedea. Kordinatzaileok komunikazio asertiboa sustatu beharko dugu, pertsona oro seguru eta gustora sentitu dadin.

Hasieran, ezagutza dinamika ezberdinak burutuko ditugu tentsioak askatzeko eta lehen kontaktu atsegina bermatu ahal izateko. Esaterako, bi egi eta gezur bat dinamika, hariarekin istorio bat asmatzea, otsoaren jolasa... eta beste hainbat jarduera burutuko ditugu pixkanaka pixkanaka harremanak sendotzeko eta esperientzia ezberdinen inguruan hotz egin ahal izateko.

Ekintza bereziak: (3)

Larunbatetan jarduera desberdinak egingo ditugu, asteburuari hasiera ona emateko. Parte-hartzaileek proposatutako ideia zaparradak kontuan izanda, ekintzak astero aldatzen joango dira. Proposamenik ez badago ekintza hauek koordinatzaileok pentsatuko ditugu. Hainbat motatako ekintzak gauzatzea gustatuko litzaiguke; adibidez, mendi edo hondartzara txangoak, eskulan tailerrak, inguruko herri ezberdinak ezagutu, etab.

Gaubelak: (4)

Ostegun, ostiral eta larunbatetan, 20:00etatik 24:00era gunean egoteko aukera egongo da. Parte-hartzaileak aukeratzen dituzten ekintzak egingo dira. Horretarako, tokian kutxa utziko da, beraien ideia sortak eta proposamenak bertan modu anonimoan partekatu ahal izateko. Hasieran, mahai joko ezberdinak, karaokea eta bestelako ekintzak proposatuko ditugu, parte-hartzaileak beraien ideiak adierazi arte.

Elkartetik kanpoko jarduerak

Zerbitzuan parte hartzen ez duten pertsonak gure proiektuaren berri izan dezaten, bi hilabete behin Bilboko eta inguruko hainbat tokitan ekintza ezberdinak antolatuko ditugu:

- Bingo musikatu masifikatua: Doña Kasilda parkean antolatuko dugu ekintza. Sare-sozialen eta kartelen bidez azalduko dugu noiz egingo dugun eta ahalik eta gazte gehien hurbiltzera animatuko ditugu. Bingoaren txartel bakoitzak euro bateko kostua izango du. Hortaz, irabazleak gure zerbitzuaz gozatzeko hilabete bat dohainik izango du.
- Bigarren eskuko azoka: Etxetik ekarritako arropa, altzariak, liburuak, jolasak, etab. zein eskuz egindako eskulan ezberdinak salduko ditugu. Prezioa ahalik eta eskuragarriena izango da. Azokak, LauArgi izena izango du.
- Kontzertu, ekitaldi, emanaldi desberdinak: Bilbo inguruko espazio ezberdinetatik bertso saioak, antzerkiak, monologoak... prestatuko ditugu, denbora modu dibertigarri batean igarotzeko eta zerbitzua ezagutzen ez duen jendea bertaratu ahal izateko. Horrez gain, ekintza/ekitaldi hauek aurrera eramateko udaletxeari baimenak eskatuko genizkioke.